

maiatza: udabarria eta gaztedia



Gaztedia dakartzkue gogora il oneek. Zelan dabil gure gaurko gaztedia? Estadistika bat egin da Frantzian 16 urtetik, 24-eraiñoko gazteen artean. 127 erriko 1.523 neska ta mutillek euren erantzuna emon deutsoe itaun oneri:

“Zer da bizitzan lenengo dana?”

- Euneko 43-k: osasuna,
- 18-k: dirua,
- 13-k: maitasuna,
- 7-k: askatasuna,
- 5-k: biarra,
- 4-k: fedea, siñismena.

nora doa gure gaztedia?

Estadistika au Frantziko gaztediarena da, baiña Europa guztira be zabaldu geinke eta asko aldatu barik, bear bada. Nora doa gure gaztedia? Zer pasaten jako?

Gaurko gaztedi au euren eskuetan daukeenak itaun gatx askori erantzun bearke deutseez. Munduaren bideak zaintzea nai bada, ezingo da laga gaztedi au “etorrera” itsuaren besoetan.

Aztu bear ez doguna da: mundu osoan eta, batez be, Asia-n eta Africa-n, Europak zer-ikusi aundia dauko. Asia eta Afrika kultur-mugak zabaltzen asi dira eta Europa-ra begira dagoz. Orreotariko gazte asko dagoz gure artean, ikasten, formatzen.

Aundia da mundu zabalearen aurrean gure gaztediaren erresponsabilidadea; baita neska eta mutil onen ardurea daukeen guraso eta abarrena be.

Benetan, gure gaztedi au jasotea, zuzen edukatzea, mundu oso-ko gaztedian biarra gitea da.

Bizkaian argitaratuten dan erderazko al-
dizkari batean agertu zan ipuiñ au, zezeillako
alean. Berba bitan, auxe da ipuiña:

“Gazte bat bere burua erreka batera bo-
tateko zorian aurkituten da. Aspertuta dago
bere zoritxarreko biziagaz. Baiña, onetan,
osagille batek topaten dau. Osagille onek
osagai barri bat asmatu dau legenarraren
aurka, baiña norbait bear dau lenengo-saioa
egiteko, arrisku andiak ditu-ta. Gure gaz-
tea prestatzen da ortarako. Saio ori, barriz,
emetik iru illebetera izango da; bitartean,
gaztea osagillearen pentzura biziko da; nai-
aiña diru eukiko dau, ta nai-aiña atsegin.
Kabaret-etan, teatruetan, era guztiko atse-
giñetan igaroten ditu bere egunak gure gaz-
teak.

Baiña, eldu jako ordua. Igaro dira aurre-
tik emoniko iru illebeteak. Zer? Il egin
bearko orain, bizitzaren edertasuna ta atse-
giña idoro ondoren?

—Ez! Ez dot gura il! Ez dot gura!— dea-
dar egiten deutso gazteak bere jaunari.
—Orain dana ikusten dot beste begi batzue-
kaz, dana iruditen jat ederra ta bizigarria!

“3 meses

Eta gure gaztea etzan il. Osagai barria
rena, osagilleak asmatutako ipuiña zan”.

Onarte aldizkariko ipuiña. Zer deritxo-
zue? Ipuña, ezta? Bai, ipuiñ polita. Baiña,
ipuiñ au kristiñau ondorengoak atarateko
egiña izan dan ezkerero, itaundu daigun zein
ondorengo atara daikegun.

Gizasemeen bizitzako edertasuna atsegi-
ñetan dagoala? Ori egia izango balitz, de-
rrigorrez esan beariko genduke asko ta as-
koren bizitzak ez daukola errazoirik. Begira
deioegun, ostera, gaixoeri, beartsueri, lan-
gille askori. Derrigorrez, ba, ezin dogu ipi-
ñi atsegiñetan gure bizitzaren oiñaria.

Nun jarri bear da oiñarri ori? Lurre on-
tako mugarriak baiño arantzago, gorago:
Jaungoikoagan. Jaungoikoak sorterazo bai-
dau mundua, eta bizitza. Gure bizitzari, be-
raz, Jaungoikoa kenduten badeutsagu, gal-
dua dogu benetako poz eta alaitasunaren



*Ercin azi ona
zure seme-alaben
biotzetan
eta ale mardulak
emongo deutzazuz
zure izenari, munduari,
Jaungoikoari.*

Gurasoak ondo konponduten dira urte bar-
diñekoak gitxi gora bera badira. Asko ko-
meni da biak oitura bardin samarreko le-
kukoak izatea. Soziedadeko naste-borraste
garratzetan ibiltea guztiz txarra jake. Se-
meen edukaziñua biena dala, ez batena ba-
karririk, konbenzituta egon bear dabe. Ondo
neurtu bear dabe semeen edukaziñua.

Semearen personalidadea geiagofuteko, bai
gorputzan eta baita ariman be, etxe osasun-
duna eta lekoduna ezтира naiko izango baka-
rririk; oitura onak eskuratu erazoten saiatu
bearko dira: jaateko orduak, ibiltekoak eta
gabekoak errezpetaten erakutsi beariko jake
lenengoxamar. Gurasoak umeari komeni

ZAINDU ZUEN

de vida"

Inausi dagiguzan
gure egoismuaren
adar illunak
eta len printza zana
eguzki bete-betea
izango da,
eta gure barru dana
argitu egingo da.



txaropena. Atsekabeak eta frakasoak izan-
go ditugu nun-nai. Baiña gure guraria Jaun-
goikoaren borondatean jarriten badogu, iñork
ez deusku bakea ostuko. Jaungoiko onaren
arribarreak beteko gaitu betiko.

Begi onekaz gure bizitza ikusita, gitxi ar-
durara dau zoritxarra edo zoriona izatea. Mun-
du ontako gora-berak baiño gorago aurkitu

izango dogu gure bizitzaren edertasuna.
Orregaitik, zuzendu bat egin gura deusagu
aldizkariko ipuiñari: ipuiña ezta oindiño
amaitu edo, obeto esateko, txarto amaitu da.
Asierako situaziño gorrian aurkituten da
oindiño gure gaztea. Oindiño eztau idoro
bizitzaren benetako edertasuna ta bere bu-
rua edonoiz ilteko arriskuan dago oindiño.

jakon libertadetxoa emoten jakin bear dabe.
Umeak zaarren artean bakarrik eztira azi
bear, bestela gero gizon bakar-zaletasune-
giak izaten dira-ta.

Gizon askorentzako, umetxoa gizon nagu-
siaren irudi bat besterik ezta, ba eurak lez
kankeez besuak eta anak mobiduteko, baita
belarriak eta begiak be entzuteko eta ikus-
teko. Askotan gurasoak neurtuten dabez
umearen almenak ume-neurriagaz eta uste
dabe eztirala sasoiko oindiño alboan egiten
eta entzuten dabena enteniduteko. Eta ori-
gaitik permetiten dabez gurasoak alkar ar-
tean ainbat berbaketa lizun eta ainbat egi-
tadi gorri, umeak gorrak eta itxuak bai-
tiran.

Umeak DANA konpreniten dau! Zegaitik?
Ait-amagandik PERSONA diferente bat da-
lako eta ez armarioan lotan dagon muñe-
ku bat! Umeak bere mundutxoa, oiturak,
berbaketa eta pentzamentuak daukaz, eta
gurasoak sustraitik ezagutu bear dabez gauz
horreek, bestela semeen edukaziña lurrera
dator.

Eta kristiñau-formaziña! Nundik dabil
gaurko kristiñau-formaziña? Ba-dakit zer
esango deustazuen: "Sarritan gure etxeko
biarrakaz eztogu eukiten denporarik, eta
erriko maixuagan botaten dogu ori". Eran-
tzungo deusuet: "Gurasoak baiño maixu
obeagorik eztago semearentzat". Gurasoak
dira lenengo maixuak. "Baiña —aurrera ja-
rraituko deustazue— zelan erakusi nik ezer
ezpadakit? Gaur eskolan liburu asko dau-
keez...". Erantzungo deusut: "Libururik
onena amaren biotzeko liburua". Eztakizu-
la? Ezer-bez? Zeozer bai orraitziño! Ba "zeo-
zer" ori erakutsi beintzat. Eta erakutsi biotz
goxoz, zuek guraso maiteok, egiten daki-
zuen lez. Zuen biotzeko berba batek geiago
balio dau, erriko maixuaren sermoi batek
baiño. Gure erlijijiñuko gauzak erakutsi su-
strairo eta ez azalez, bestela aundiagoak asten
diranean etorten jakez beste miñe erlijijiñu
txar, esate baterako komunismoaren dotri-
ña, eta... or doaz gero anakz gora.

Erakutsi sustrairo, mamintu eta artez gu-
re egizko erlijijiñuaren dotriña.

Eta ez pentza txantetako gauza bat dala
au, ez; gurasoak obligaziñu astun bat dabe
gai onetan.

Gure erlijijiñuaren kontrakoak gure erlij-
jiña ikasten dabe gu lurreratuteko; zegaitik
ez estudiatu guk gurea defenditeko?

SEMEEN AZIERA



ANDRAZKOA MUNDUAN

3 Geroago ta geiago, andrazkoa bere eskubideen kargu artzen dator. Batez be gaur, asko entzuten da onetzaz: andrazkoak gizonezkoekin pare izaten nai dau sail askotan. Bere almen guztieri bideak iregitzea nai dau andrazkoak. Eta ez da dana ain oker naia. Egoki datoz gaur onelako barriak: Wu doktorak inbentu aundi bat asmatu dau. Andrazko batek, txinea jatorriz, lortu dau ainbat jakitunen luzaroko ametsa.

Eta jakia, ipar-amerikatarrak Wu izentatu dabe "lenengo andrazkoa" fisika saillan. Emendik aurrera, asmatzaille aundien izenen artean andrazko alai batere-na entzungo dogu: Chien-Shiunb Wu.

4 Joan dan febreroan loba bat euki dau Sofia Loren-ek: Alessandra Mussolini. Bera izan zan umearen bataioan ama-besoetako izatera izentatua, baiña galazo egin jakon.

Jakia, kristau bateren guraso-ordezkoa izatea bizibide garbia eskatzen dau. Bistan dago beso seguruetan laga bear dala bataioaz konsagratua izan dan umea. Sofia Loren ziñeko artista da, itxura ederrekoa... Baiña ez da naikoa Elizarentzat. Bizitz zuzen eta garbia bear da.

Sofia Loren biotz onekoa da, eta bake zalea... eta ori ondo dago, baiña Sofia Loren bere gizona laga eta Carlo Ponti-gaz dabil, eta ori ez.

Gauzak diran legez eta bakotxari berea: personeeri errespeto osoa, gaiztakerieri egundo be ez.

1 "Lenago onak gauza onak egiten zira gaur "onak" nire senarraren eta errod dot asmatu zelan diran gauza onek... —"Gizonen gauzak", erantzun bear... Baiña "onen" gauzak ulertu ez arren...

Bruselas-era ekarri eban senarrak bere bere erbesteko egunak ikasterako apro ziran txintxo-txintxo, eta berak etxean andrearentzat ez dira izan ordu galduak da Afrika-k eta Europa-k daukeen al joango gara baretzen.

Poztu begi Tshombe jauna bere an...

2 Andrazko izen entzute aundikoa. Ongizona il ebenean, Ceilan-go "prim... lla lortu eban. Andrazkotasun sendo ditzat artu genduan bere jesto ori.

Oraindik ontsu, China-India eztabaidi jokatu dau.

Baiña ez da dana txalogarria eta garren politikean. Lastek diran botasiñuetan irabastearren, euren naiara makurtu da: lak artzea eta erlijiosuak kanpora botate bat ospitel eta gaixo bertanbera gelditu.

Naiago izan dau Bandaranaik-k boto ainbeste ume eta gaixoen deadarra entzute.

Biotzez sentitu bear Bandaranaikere-go dogu txalotu oraingoan.

1 Madame Tsombe

2 Bandaranaik

3 Wu

4 Sofia Loren

txarrak gauza txarrak. Baiña
dik dabiltz, eta zergaitik? Ezin

Tshombe-ren andreari.
en andreak ikasi gosea daroabil.
danak ez galtzeko be. Eta
itu. Alabeak kolejiara joaten
entson ikasteari. Tshombe-ren
egin dituanak. Gizaldietakoa
onelako interesarekin laster

eragaz.


ere
mai-
iru-

berezi

naike-
guntza
esko-
ta, ain-
abaztea,
Ezin-

"Francisco de Asis"

(PELIKULEA)



Zuek guztiok Michael Curtiz-en pelikula au aspaldion ikusita edo ikusteko erea euki-ko dozue. Geienetan, gure ustez, eritxi onez-koegiak entzun ditugunez, emen zeozer esan gura dogu, "Francisco de Asis-en" egia argitu guraz.

Franzisko deunaren bizitzako ixtoria izan gura badau pelikula onek, lenago esan bear dana da, nai ta nai ez, guzur asko batu izan ditula ziñe osoan zear:

1) Elizak barriztuten asi zanean, Franziskok ez eukan oindiño lagunik. Geroago batu jakozan.

2) Fr. Elias ezegoan pozik Franzisko-ren erregla gogorragaz eta apur bat aldatu gura izan eban. Baiña larregi maite izan eban bere Aita, onen kontra zeozer egiten ausardituteko. Gaiñera, Franziskok ez eutsan itxi iñori zerutik artutako erreglari letra batik be kendutea.

3) Klara ta Franzisko-ren gaztetako alkar maitasunatzaz ixtoriak ez deusku ezertxo be ekarten. Bai-leitekela? Ez dogu ukatuten, baiña gogoan euki bear da Klara Franzisko baiño gizarte-malla goragokoa zala ta gizaldi aretan gizarte-mallako berezitasunak ondoegi gordeten zirala. Onegaitik, gatx izango zan gazte bien alkar maitasun ori.

4) Franzisko deunaren denporan Damietta etzan jausi kristiñauen eskuetan. S. Luis erregeak eskuratu eban andik eta 30 urte geroago.

"Francisco de Asis" ziñe-nobela bat dala? Orixe da guk esan gura doguna be. Nobela bat, Klara ta Franzisko "batzuen" alkar maitemñaren nobelea, tebeu askoren antzekoa, betiko personajeekaz (senargai, emaztegaia ta irugarren bat, Pablo kondea) ta betiko situaziñoekaz osatua; azalezkoa, sekuenziak zatika batuta. Zergaitik azkenean, nobelea ondo amaituteko, ez ditugu ikusten biak be-soa emonda zerura igoten?

Igaz, pelikula au Valladolid-era eroan zan, uri onetan urtero izaten dan "Semana Internacional de Cine Religioso-ren" sariketara. Ta zer? Saria ez jakon iñori emon. Nun asma pelikula onetan jaungoiko-giroa?

Ona emen, azkenez, erderazko aldizkari bien eritxia pelikula onetzaz:

"Todo lo peor de la estampita, el cromo y el almibar cae sobre esos metros de película extrañamente coloreados y superficialmente contados. El espíritu del "poverello" desaparece entre el coloso, el sansulpicianismo y el ritmo a lo Robin Hood" (FILM IDEAL).

"Superficial y acartonada versión de la vida de tan sublime personaje, convertido por Hollywood en una especie de Robin de los Bosques con hábito" (VIDA NUEVA).

Ainbeste baserri utsitutera doazela-ta, danok ibi-
 lli gara buruz-bera, zer egin bear dogun jakin barik.
 Buruauste au kenduteko ta gauzak bere lekuan ipin-
 teko, Aita Santuak berba egin deusku bere "Mater
 et Magistra"-n. Danori diñosku beren ikaskizunak
 gogoan artuteko ta jarraituteko. Batez be, akatz bat
 agertu deusku agiri-agirian. Artu gogoan eta ipiñi
 lenbailen berak jarritako erremedia.

Ez dira falta gure baserrietan periodiku ezta
 radiatorik be. Dana dator gure kultura ta aurrerapena-
 ren alde. Ondo dago, baiña ezta dana, dinosku Aita
 Santuak. Sustraiian ongarriak badira, gauzatxo bat
 kaltegarri jaku. Konturatu barik, menpekotasunezko
 zerbait gure animan sartuten dala esan bearko. Erri-
 ko bizitzaren barri eukiteak, besteen bizitza alaiagoa
 ta gurea, barriz, epelagoa dela siñistutera garoaz.
 Mundu barri onetan gure baserriak aztu egin dirala,
 uste izaten dogu. Siñeste oneek ezaguturik Joan
 XXIII artega dago. Baten baiño geiagotan esan deus-
 ku munduko ekonomiaren ezbardintasuna baserri bi-
 zitzaren ezezpenatik datorrela. Ez da Aita Santua
 bakarrik preokupatu. Erri guztietako eritxia dago
 gaur kezkatuturik.

Eta onen aurrean zer? Auxe: Orain arte, sozие-
 dadearen partetik baztertuak izan bagara, aurre-
 rantzean munduaren aurrean irabazi egin bear dogu.
 Irabazpen au lortuteko, edukaziñu on bat gauzarik
 ederrena. Zeozer egin gura badogu, auxe da jo bear
 dogun untzea. Ementxe jo ez-ezik, alperrik gabiltz;
 ez da naikoa, baserriak utsitutera doazela-ta, berba
 ugari egitea. Ekin bear dogu. Ta, batez be, gurasoak
 dira erresponsabilidades aundieta daroenak.

baserria,
itzartu
adi!

*Aita Santua
 nekazaritzari
 ekiten*

Nekazaritzak, 1950'garren urtean, naziuaren irabazietan ipini eban zatia onela izan zan.

España-n	26%
Brasil-en	29%
Egipto-n	44%
India-n	50%
Pakistan-en	61%

Nekazariak naziuaren biztanle guztien artean dira:

Inglaterra-n	5%	URSS-en	50%
USA-n	10%	Egoamerikan	58%
Bélgica-n	12%	Próximo Oriente-n	72%
Holanda-n	29%	Extremo Oriente-n	75%
Francia-n	36%	Africa-n	75%
España-n	50%	China-n	90%
Yugoeslavia-n	75%		

KRISTO, ELEIZA TA GAZTEA

Joan zan illean, "Erlijiñua ta Formaziñua" titulutzat eroan eban artikulutxuan, zerau esan genduan: "Mundu onetan izan diran gizon guztiak Jaungoiko-gosea eroan dabe barruan; eta Jaungoiko-gose au erlijiñuaren bidez kentzen alegindu dira beti".

Zoritxarrez, mundu onetan erlejiñu asko izan dira; baiña, asko izan arren, ez dira guztiak onak izan, ez dabe guztiak Jaungoiko-gose ori kentzeko balio izan. Gizona, pekatuan jausi baiño len, Jaungoikozko bizitzan bizi izan zan. Bere joera Jaungoikoa zan; bere bizi bidea Jaungoikoaren Legea zan. Baiña, zoritxarrez, gizona pekatuan jausi zan, eta pekatuan jausi ondoren, Jaungoikozko bizitza ta bidea galdu egin ebazan; gizona direkziñu bage gelditu zan mundu onetan, Jaungoiko gosez.

Orduantxe sortu izan ziran Jaungoiko-gose ori kentzeko erlejiñuak: batak igetargia artuko eban Jaungoikotzat; besteak, eguzkia; urrengoak, aizearen burrundarea... Mundua gau baltzean jausi zan!

Baiña, Jaungoikoa errukiorra da. Bere errukitasunetik urtengo eban gizonaren Sal-

* **ZURE ERLIJIÑUA, KRISTO-REN ERLIJIÑUA DA, GAZTE!**

* **KRISTO-K SOZIEDADE BAT FORMATU EBAN: ELEIZA.**

baziñuak; eta erruki ortatik urtengo eban benetako Erlijiñuak, benetako salbatzaileak; erruki ortatik urtengo eban KRISTO-K.


Kristo-ren etorreratik gizona, eta gizona-rekin izadi guztia, salbatuta geldituko zan; baiña, ez edozein gizon, Kristo-gan egoan gizona baiño. Kristo-engan Aitarengana ez ioian gizonak ez eban eukiko Salbaziñurik.

Kristo etorri zan mundura. Mundu onetan bizi zan. Zer egin eban? Gizonarentzat Salbaziñua irabazi, gizona Jaungoikoaganatu.

Baiña, ez eban denpora aretako gizonarentzat bakarrik salbaziñua irabazi, ez. Munduan izango ziran gizon guztientzat irabazi eban salbaziñua; eta gizon guztiak berak irabazitako salbaziñu onen bitartez salbatuteko, soziedade bat fundatu eban; baiña, ez edozelako soziedade bat, soziedade "Mistikua", "Gorputz Mistikua" baiño. Gorputz Mistiku onen izena ELEIZA da.

Baiña, zer da Kristo-k fundatutako Gorputz Mistiku edo Eleiza au? Eleiza Kristoren "jarraitasuna", Kristo-ren "bizia", Kristo-ren "Espiritua", Kristo ber bera da.

Ta, zein da Soziedade Mistiku onen elburu edo joera? Soziedade Mistiku onen biarra ez da asteen bein arriz egindako eleizara joan eta Meza bat entzun eta "kitxu" esatea; soziedade Mistiku onen bierra ez da eskapulario polit bat, urregorritzkoa gura ba-dogu, paparrean dindilizka eroatea; soziedade Mistiku onen biarra ez da egunero Jaunartzea, norberaren salbaziñuagaitik bakarrik biar egitea; soziedade onen eginkizun eta joera, munduan dagozan gizon eta emakume guztiakaitik preokupaziñua eukitea, da; soziedade onen eginkizuna norberaren bizi guztia sustrai sustraitik Kristo-ren bidez Jaungoiko Aitari eiskeintzea da, eta eskein onen bidez mundu guztiaren salbaziñuagaitik biar egitea. Ta, biar au egiteko ez da naiko Meza Santua entzun edo errosariau erresatea; biar au egiteko bear bearrekoa dau Kristok zure bizitz osoa, zure gaztetasunaren odol bizia, zeure bizitza berari eroatea; baiña, ez edozein bizitza, zeurea dozun bizitz orixe baiño.



SEMEAK: biarra aurkituteko akatza

Seme asko dituen familietako aitak solteroak baiño gaxtasun geiago aurkituten dabe biar-leku bat edo fabriketan puesto bat topateko orduan.

Erri aundien inguruetan gure mundu onetan, zoritxarrez, beti izaten dira txabolak. Eta txabola orretan famili asko beartsuak dira, diruaren premi-ña gorrian aurkituten diranak.

Ama bat ikusten dogu txabola orreitako batean. Zortzi seme-alaba daukoz etxean zabaldua; txikiak, danak nunbait, biarrerako gauza ez diranak oraindik. Gizona bera be gaixorik, eta ezin dau gauza aundirik.

Ta berba ta berba --oraintxe dator aundiena-- pregunta auxe zuzenduten deusat azkenean: Zer-gaitik, ba ez dozu egiten zeuk biarrik fabrika baten?

—"Seme askotxo-edo daukadaz eta ez nau fa-briketan inork artuten".

Amaren erantzun mingotsa: liorra benetan! Kris-tiñau gareanori min emon bear leuskigu biotzean. Ezarkera gogorra ama onena.

Gogorragoa eta lotsagarriagoa oindiño, ainbeste ugazaba upilako bekoki illunagaz ikustea aita gora-

40 milloi ilten dira munduan urte-ro goserik. (60 milloi danetara).

2000 milloi gizon, andra ta ume goserik bizi dira (irutik bi).

500 milloi analfabeto dagoz mun-duan.

Baiña, "gaurko gaitzik txarrena ez da pobreen beartasuna, dauke-neen zabarkeria baiño". (P. Lebre).

7 billoi eta 200.000 milloi pta. in-guru emoten dira munduan urtero armamentuetan: URSS: daukan 100-eko 25, USA: daukan 100-eko 10.

BEARTASUNA MUNDUAN

Sabadell uriko "Acción Social Pa-tronalak" diñoanez, 137 pta. bear ei dauz gitxienez bi seme dauazan fa-miliko aita batek eguneroko biarsa-ritzat. Ta famili ugariagoa daukan biargiñak 137 pta.-tik gora eskatu-teko deretxoa dauko.

Liburutxo polit batean atara da-bez jornalari buruzko Kristiñau -- printzipio jeneralak. Eta bertan di-ñoanez, España'n oraindiño, bear dan legez ondo ez garela aurkituten-eta, denpora normaletan aundiagoa izan bearko leuke alogera onek.

Ugazaben eskuetan jarri dabez, azkenez, eta danen artean aztertu-ko dabez.

**BIARRAREN
ALOGERA**

garri batek biarra eskatutarakoan, seme asko dau-kazala agertuten deusenean. Eta aintza ta txaloa merezidu dabezan aita fin orreek dira, barriz, lotsa-rik aundiena pasatu bear dabenak. Euren fabri-kan ugazabak naiago ditue seme gitxiagoko gura-soak edo biargiñak, eta oba danak solteruak edo mutil-zarrak balira. Ondo dakigu danok zergaitik dan, baiña...

Ugazaba askok eta askok biar billa doanari pre-gunta auxe egiten deutsoe lenengo-lenengo: Zenbat seme dozuz? Eta asko badozuz, --kito jkanpora; --eztago an biarrik gizo arentzako. Seme asko dau-kazala esatea, ateak zabaldu bearrean, ixten dauazan rekomendaziñoa da orregaitik gaurko munduan. Kris-tiñau dan batek ezin leike ori egin...

Pa gero, bearbada, ugazaba onek bere burua eskatutaz joko dabe; eta izan leike limosna be-eg. Auxe dogu okerrik aundienetarikoa... Li-mosna baiño ariñago egin bear doguna, justizi ta zuzenbidez eskatuten jakuna betetea, da: Eskatuten deuskuen guztieri biarra emotea ta txabolatan bizi diranen bizimodua obeagotutea da karidadea baiñe lenago. Elizak karidadea ez dau ametidu inoiz jus-tizi-austearen ordaiña legez. Ederto diño Leon XII-ak: "Gure soziedade ta gure burua kristiñautzat jo gura badogu, karidadea egin baiño len, egia ta jus-tizi garbiak eskatuten deuskuena bete bearrean aur-kituten gara; baiña izan be otza da justizi utsa, eta bear dogu bai karidade eta errukiaren berotasuna".